

Lanbide-, prestakuntza-, laguntza-, kultura- eta gizarte-jarduerak, bai eta ingeniarien arteko topalekuak errazten dituzten eta ingeniarientzat eta Industri Ingeniaritzarentzat komenigarriak diren beste antzeko jarduera batzuk ere, antolatzea. Horretarako, enteak edo zerbitzuak sortu edo sustatu, eta Administrazioarekin, Instituzioekin eta Erakundeekin itunak edo hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte.

### 7.3. artikulua

Batzorde Orokorrak elkargoari lotzeko beste modu batzuk onartu ahal izango ditu, eta Elkargoarekiko izango den lotura-maila dagokion araudian ezarriko da.

### 34.e) artikulua

Elkargoak kudeatutako argitalpen eta zerbitzuetatik lortutako irabaziak eta eskubideak.

## Zk-6389

AGINDUA, 2003ko urriaren 13koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren estatutuetan egindako aldaketa onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomía Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Orgánicoaren 10.22 artikuluan ezartzen denez, Profesionales Elkargoen eta Tituludun Lanbideen alorreko esku-mena Euskal Autonomia Erkidegoari baino ez dagokio, Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa hautsi gabe, betiere.

Tituludun Lanbideei eta Profesionales Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea aiapatu eskumenaren indarrez eman zen. Lege horren 33. artikuluan ezartzen denez, elkagoen estatutuak eta horien aldaketak Eusko Jaurlaritzako Justicia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinarazi beharko zaizkio. Gerro, sail horrek, estatutuok legearen barruan daudela egiaztatu ondoren, behin betiko onartuko ditu, agindu baten bitarbez. Azkenik, agindua, estatutuekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatuko.

Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren estatutuetan egindako aldaketa legearen araberakoa dela egiaztatuta, Tituludun Lanbideei eta Profesionales Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

Organizar actividades de carácter profesional, formativo, asistencial, cultural, social y otros análogos que propicien lugares de encuentro entre los Ingenieros y se consideren convenientes para los mismos o para la Ingeniería Industrial. A tal fin podrán crear y fomentar entes o servicios y establecer conciertos o acuerdos con la Administración, Instituciones y Entidades.

### Artículo 7.3.

La Junta General podrá aprobar otras figuras de vinculación colegial distintas de la colegiada cuyo grado de vinculación al Colegio se establecerá en el correspondiente Reglamento

### Artículo 34.e)

Los beneficios y derechos que obtuviere por publicaciones y servicios por el gestionados.

## Nº-6389

ORDEN de 13 de octubre de 2003 del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social por la que se aprueba la modificación de los estatutos del Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Álava.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los Artículos 36 y 139 de la Constitución Española.

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, dictada en virtud de la citada competencia, establece en su artículo 33 que los estatutos colegiales, así como su reforma, serán comunicados al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco para su aprobación definitiva, previa verificación de su legalidad, mediante Orden que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco conjuntamente con los estatutos e inscrita en el Registro de Profesiones Tituladas.

Verificada la adecuación a la legalidad de la modificación de los Estatutos del Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Álava, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales

## EBATZI DUT:

**1. artikulua.**— Onarpena.

Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren Estatutuak aldatzea onartzea.

**2. artikulua.**— Argitalpena.

Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren estatutuetan egindako aldaketa agindu honen eranskin gisa agitarra dadin agintzea.

**3. artikulua.**— Inskripzioa.

Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren estatutuetan egin den aldaketa Tituludun Lanbideen Erregistroan inskriba dadin agintzea, elkargoa formalki osatzen den unean.

## AZKEN XEDAPENA

**Bakarra.**— Eraginkortasuna.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriaren 13a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,  
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

2003KO URRIAREN 13KO AGINDUAREN  
ERANSKINA

## 6.2.j) artikulua

Lanbide-, prestakuntza-, laguntza-, kultura- eta gizarte-jarduerak, bai eta ingeniarien arteko topalekuak errazten dituzten eta ingeniarientzat eta Industri Ingeniaritzarentzat komenigarriak diren beste antzeko jarduera batzuk ere, antolatzea. Horretarako, enteak edo zerbitzuak sortu edo sustatu, eta Administrazioarekin, Instituzioekin eta Erakundeekin itunak edo hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte.

## 7.3. artikulua

Batzorde Orokorrak elkarri lotzeko beste modu batzuk onartu ahal izango ditu, eta Elkargoarekiko izango den lotura-maila dagokion araudian ezarriko da.

## RESUELVO

**Artículo 1.**— Aprobación

Aprobar la modificación de los Estatutos del Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Álava.

**Artículo 2.**— Publicación

Ordenar la publicación de la modificación de los Estatutos del Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Álava como Anexo a la presente Orden.

**Artículo 3.**— Inscripción

Ordenar la inscripción de la modificación de los Estatutos del Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Álava en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

## DISPOSICIÓN FINAL

**Única.**— Efectividad.

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 13 de octubre de 2003.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,  
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

ANEXO A LA ORDEN DE 13 DE OCTUBRE  
DE 2003.

## Artículo 6.2.j).

Organizar actividades de carácter profesional, formativo, asistencial, cultural, social y otros análogos que propicien lugares de encuentro entre los Ingenieros y se consideren convenientes para los mismos o para la Ingeniería Industrial. A tal fin podrán crear y fomentar entes o servicios y establecer conciertos o acuerdos con la Administración, Instituciones y Entidades.

## Artículo 7.3.

La Junta General podrá aprobar otras figuras de vinculación colegial distintas de la colegiada cuyo grado de vinculación al Colegio se establecerá en el correspondiente Reglamento